

FUNTSEZKO ELKARTEAK

SilenRoom bezalako produktu teknologiko eta akustiko baten garapena ez da gure barne lanaren emaitza soilik izango. Gure proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoa da sektore ezberdinetako bazkide estrategikoen sare sendo bat izatea. Sare honek hiru elementu nagusi bermatzen ditu: produktuaren kalitatea eta segurtasuna, egonkortasun teknologikoa eta gure marketen ereduaren eraginkortasuna. Jarraian, gure proiektuko enpresa gakoak azalduko ditugu, bakoitzaren ekarpen espezifikoak eta haien hautaketaren arrazoi estrategikoak zehaztuz.


AKUSTIKA ETA ISOLAMENDU HORNITZAILEAK: SILENROOM-EN OINARRI FISIKOAK



Lehenik eta behin, ezinbestekoa dugun sozietatea, akustika eta isolamendu hornitzaileak izango dira, esate baterako, gure proiektuaren oinarria izango baitira. SilenRoomen funtzio nagusia espazio batean zarata-maila murriztea denez, akustika profesionaleko hornitzaileak dira gure aliantzarik garrantzitsuenetakoak. Haiek hornitzen dituzte panel akustikoen oinarritzko materialak (lana, PET birziklatua edo beira-zuntza) eta euren teknologia da gure produktuak izan dezakeen islatze- eta xurgapen-mailaren arduradun hoberena. Teknikoki ondo fabrikatutako panel batek %60 eta %90 arteko zarata-xurgapena lor dezake, eta informazio horiek ezinbestekoak dira gure produktua merkatuan lehiakorra izan dadin.

Hornitzaile egokia izateko, enpresak akustika-arloan nazioarteko ziurtagiriak izan behar ditu (ISO 354, EN ISO 11654...) eta eraikin publikoetan erabiltzeko segurtasun-estandarrek bete behar ditu. Absotec enpresak Espainia mailan instalazio profesionalean duen esperientzia zabala eskaintzen du, gure produktuaren ezaugarriekin bat datozenak: <https://www.absorcionacustica.com/>. Mundu mailan, Ecophon (Saint-Gobain taldekoa) da akustika arkitektonikoan maila altuenetakoa eskaintzen duen enpresa, eta bere materialak ospitale, eskola eta bulegoetan erabili izan dute: <https://www.ecophon.com/es/>. Halako hornitzaileekin lan egiteak gure produktuen kalitatea eta batez ere segurtasuna bermatzen ditu.

FUNTSEZKO ELKARTEAK



ELEKTRONIKA ETA BLUETOOTH LOTURAKO BAZKIDE TEKNOLOGIKOAK: SILENROOM-EN BIHOTZ TEKNIKOAK

SilenRoom ez da panel akustiko pasibo bat; gailu honek Bluetooth bidezko konektibitatea, soinu-kontrol aktiboa eta zarata-mailen monitorizazioa integratzen ditu. Horregatik, elektronika eta komunikazio alorretan adituak diren bazkide teknologikoak dira gure bigarren elkarte gakoak. Haien ekarpena funtsezkoa da gure APParekin konektatuta egon daitezen panelak, datuak modu seguruan transmititu daitezen eta gailuak etengabeko funtzionamendu egonkorra izan dezan.

Elektronika-fabrikatzaile egoki batek kalitate-estandar altuak bete behar ditu (RoHS, CE, FCC...), eta horregatik TDK Electronics bezalako markak fidagarritasun handia eskaintzen dute, zarata-murrizketarako eta seinale-prozesamendurako erabiltzen diren osagaietan berariaz espezializatuta baitaude: <https://www.tdk-electronics.tdk.com/en>. Bluetooth moduluei dagokienez, Murata mundu mailako liderra da miniaturizazioan, energia-eraginkortasunean eta konektagarritasun egonkorrean; bere soluzioak hemen ikus daitezke: <https://www.murata.com/en-eu>. Bestalde, Texas Instruments-ek audio DSP (digital sound processing) txip profesionalak eta Bluetooth soluzio industrialak eskaintzen ditu, SilenRoom bezalako produktu batean soinu-datuak zehaztasunez prozesatzeko ezin hobeak: <https://www.ti.com/wireless-connectivity/bluetooth/overview.html>.

Teknologiari dagozkion bazkide hauek aukera ematen digute gure panelak ez soilik ondoko zarata xurgatzeko, baizik eta erabiltzailearen beharretara egokitzeko, APP bidez konfiguratzeko eta etorkizunean funtzionalitate berriak garatzeko.



APLIKAZIO MUGIKORAREN GARATZAILEAK: SILENROOM-EN BURMUIN DIGITALA

Gaur egungo merkatuan, produktu on batek ezin du arrakasta izan interfaz digital intuitibo eta sendo bat gabe. Gure APPak panelen egoera kontrolatzeko, zarata-mailak neurtzeko eta instalazioen mantentze-lanak planifikatzeko aukera ematen du, beraz software-garatzailerik espezializatuekin lan egitea da beste giltza estrategiko bat.

APParen garapena ez da soilik diseinua eta programazioa; datuen segurtasuna, enkriptazioa, Bluetooth bidezko lotura egonkorra eta arazo teknikoen mantentzea dira elementu kritikoak. Horregatik, IoT (Internet of Things) proiektuetan esperientzia duten enpresak dira gure aliatu egokienak. Euskal Herrian, Irontec bezalako software-agentziek industria sektorearekin lan egiteko esperientzia handia dute, eta aplikazio profesionalen kalitatea bermatzen dute: <https://www.irontec.com/>. Gainera, SPRIren bidez Berrikuntza Teknologikorako laguntza-sare publiko bat ere eskuratu daiteke, digitalizazio-proiektuen garapena finantzatzeko: <https://www.spri.eus/>.

Bazkide hauek guztiak funtsezkoak dira SilenRoom erabiltzaileek esperientzia fidagarria eta profesionala izan dezaten.

INSTALAZIO ETA MANTENTZE ENPRESAK: KALITATEA BERMATZEKO AZKEN FASEA

Panel akustikoen instalazioa ez da zintzilikatu eta listo; kokapenaren angeluak, altuera, material konbinazioak eta elektronikaren konektibitatea faktore erabakigarriak dira. Horregatik, instalazio profesionaletan esperientzia duten enprekin aliantzak egitea beharrezkoa da.

Eulen taldeak instalazio eta mantentze zerbitzu integrala eskaintzen du estatu osoan, eta industrializazio-proiektuetan duen esperientziak berme handia ematen du: <https://www.eulen.com/es/>. Beste aukera egoki bat Elecnor (<https://www.elecnor.com/>) da, biak muntaketa tekniko konplexuetan espezializatuak dira.

Instalazio egokia izatea da gure produktuaren errendimendua %100 benetakoa izan dadin bermatzen duen azken etapa.

